

TOKIKO MERKATARITZA, ETA EKONOMIA JASANGARRIA ETA SOLIDARIOA BULTZATZEKO TOKIKO MONETA SOZIALAREN ERABILERARAKO DIRULAGUNTZAK ARAUTUKO DITUEN OINARRI ERREGULATZAILEAK ETA DEIALDIA

ARRAZOIEN AZALPENA

Egungo erronka globalen testuinguruan, herritarren beharrei herri gisa erantzuteko prozesua jarri du martxan Hernaniko Udalak: Hernani Burujabe.

Hernani Burujabe herri gisa burujabetza, justizia soziala eta ongizate handiagoa eskuratzeko asmoz sortutako proiektua da, eta eguneroko bizitzan beharrezkoak diren arlo nagusietan subiranotasunerantz joatea da bere xedea.

Bide horretan, hainbat erronkari aurre egin beharko dio: energia modu jasangarriago batean kontsumitzeko erronka, zaintza sistema duin bat eraikitzeke erronka, pobrezia eta bazterketa soziala murrizteko erronka, teknologia baliabideak (gero eta beharrezkoagoak) guztion eskura egotea bermatzeko erronka tokiko ekoizleak eta merkatariaiek eta produktuak sustatzeko erronka, besteak beste.

Hernaniko Merkataritzaren Ekintza Planean, moneta lokala tokiko merkataritza sustatzeko ardatzetako gisa islatzen da (5. ardatza, 5.1 lerroa) eta praktika horren hainbat erreferentzia aipatzen dira: Eusko Iparraldean, Ekhi Bizkaian, Txanpon Nafarroan, Rec Bartzelonan eta Costavales Galizian.

Hernaniko Udalak, Ekhilur kooperatibaren bazkide laguntzaile izateko eta Ekhi izeneko moneta soziala martxan jartzeko erabakia hartu zuen 2021eko otsailaren 23ko osoko bilkuran. Ekhi moneta sozialaren erabilera lagungarria da Hernanin %100 tokiko merkataritza, eta ekonomia jasangarria eta solidarioa bultzatzeko.

Berriak elkarteak, Hernaniko merkatarien eta ostalarien elkarteak, laguntzaileak da tokiko moneta soziala sustatzeko prozesuan.

Horrela, Hernaniko Udalak agente aktibo izan nahi du eraldaketa horretan eta, horretarako, Hernanin Ekhiaren erabilera sustatzeko dirulaguntza deialdia aurkezten du honako helburuekin:

- Herrian zirkuito ekonomiko itxiak sortzea, tokiko ekonomia eta merkataritza indartzeko.
- Herritarren erosketak ohiturak aldatzea, erosketak herrian egitera animatuz, ekonomia jasangarria bultzatu ahal izateko.
- Komunitatea indartzea (herritarrak, enpresa txikiak-ertainak, Udala...), lehiatu beharrean, inguruko bizitza soziala eta ekonomikoa hobetzen lagunduz.
- Hurbiltasun-ekonomia indartzea, ikuspegi solidariotik, gizarte-ongizatea eta justizia ekarriko duten balioak sustatuz.
- Udalerriko hiri ekonomia dinamizatzea, beste neurri batzuen osagarri eta indargarri gisa jardunez.

Horrelako laguntzek sor dezaketen enpresa sendotzearen dinamika ez da bateraezintzat jotzen lehia indarren joko askearekin, lehiarako gutxieneko murrizketarekin eta

zeharkako etekina merkataritza banaketako enpresa gutxi batzuetan kontzentratzea saihesteko neurriekin egiten baita.

Azkenik, Dirulaguntok bat datoz Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrarekin, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuarekin eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearekin.

1. Artikulua. Helburua

Deialdi honen helburua da Hernaniko Tokiko merkataritza, eta ekonomia jasagarria eta solidarioa bultzatzeko, merkatal kontsumoa eta Ekhi moneta sozialaren erabilpena sustatzeko dirulaguntza arauak onartzea.

2. Artikulua. Aurrekontua eta programak

2026 urteko udal-aurrekontuaren behin betiko onarpenarekin bat etorritz, deialdi honetarako, 160.000 euro erabiliko dira, 1 1520.481.02.431.00 2026 DIRULAGUNTZAK KONTSUMO BONOAK aurrekontu partidaren kargura.

3. Artikulua. Diruz lagunduko direnak eta aplikazio eremua.

Ekhilur Hernaniko erosketa-sistema sarean, kontua duten erabiltzaileen artean erosketarako hobariak banatuko ditu Udalak, ondoko ezaugarrien arabera:

1. 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra, sareko erabiltzaileek, pertsona fisikoek nahiz juridikoek, egiten dituzten erosketei hobaria gehituko die Udalak, erabiltzaile bakoitzaren sareko kontuan.
2. Ekhilur sareko establezimenduek eskaintzen ditzuzten hobari propioak osatuko ditu Udalak. Hau da, eskaintzen dituzten hobarien baldintzapeko hobariak eskainiko ditu:
 - Establezimenduak % 1eko hobaria eskaitzen badu, Udalak % 4ko hobaria gehituko dio.
 - Establezimenduak % 3eko hobaria eskaitzen badu, Udalak % 7ko hobaria gehituko dio.
 - Establezimenduak % 5eko hobaria eskaitzen badu, Udalak % 10eko hobaria gehituko dio.
 - Establezimenduak ez badu hobaririk eskaintzen, Udalak ez du establezimendu horretan egiten diren transakzioak diruz lagunduko.
3. Kreditu erabilgarria homogeneouski banatuko da dirulaguntza oinarriok indarrean dauden epealdian. Hau da, hilean 12.500 €-ko partida bat ezartzen da. Hilabeteko partida agortzean, ez da udal-hobari gehiagorik banatuko hurrengo hilabeteko partida aktibatu arte. Urteko azken hilabetean, ordea, eta aurreko hilabetetako kredituan soberakina egongo balitz, kreditu hori handituko da.
4. Erabiltzaile bakoitzak, pertsona fisikoa nahiz juridikoa izanda ere, gehienez 100 €-ko balioa duen dirulaguntza jaso ahal izango du hilabete bakoitzeko. Zenbateko hori gaindituta, ez zaio erosketetarako hobaririk emango hurrengo hileko kreditua aktibatu arte.
5. Hobaria jasoko duten Ekhi Hernani sareko erabiltzaileak izango dira Hernanin erroldatutako 18 urtetik gorako pertsona fisikoak baita Hernanin helbide soziala

duten entitateak ere. Autonomoen kasuan, denda finko bat duten komertzio txikiek ere hobaria jaso ahal izango dute.

Bestalde, Udalak 2026ko abenduaren 31ra arte abalatuko ditu bazkidetzen ez direnak: herritarrak, denda finkoa duten merkatariak, egoitza soziala Hernanin duten kooperatibak eta enpresak; eta dirulaguntza honen esparruan bere gain hartuko ditu lotutako mantentze-kuotak.

Abalatutako kontu horiek 6 hilabete baino gehiagoan erabilko ez balira, abalatzeko horiek bertan behera utziko lituzke Udalak.

6. Partikularren arteko diru-trukeak ez dira diruz lagunduko.

4. Artikulua. Laguntzen izaera.

Programa honen esparruan ematen diren laguntzak itzuli beharrik gabeko dirulaguntzak dira.

5. Artikulua. Laguntzak kudeatzeko organoa.

Turismo eta Merkataritza Sailari dagokio deialdi honetan aurreikusitako laguntzak kudeatzeko lanak egitea, erakunde laguntzailearekin elkarlanean.

6. Artikulua. Onuradunak

1. Hernanin kokatuta dauden saltokiak, kooperatibak, enpresak eta elkarteak.
2. Jardueraren egoitza Hernanin duten norberaren konturako langileak.
3. Hernanin erroldatutako 18 urtetik gorako pertsona fisikoak.

7. Artikulua. Erakunde laguntzailea.

1. EKHILUR kooperatibarekin elkarlanean banatuko dira hobarien bidezko dirulaguntza funtsak, eta dirulaguntzaren baldintzak eta eskakizunak betetzen direla egiaztatu ere bai.
2. Elkarlana, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2013 Lege Orokorraren arabera izango da. Lege horretan eta dirulaguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaileentzako garapen xedapenetan aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaio erakundeari.
3. Deialdiaren oinarriak argitaratzearekin batera, hobarien kudeaketarako diru funtsa erakunde laguntzailearen esku utziko da, oinarri hauetan jasotako arau eta prozeduraren baitan Hernaniko Ekhi moneta sozialaren sareko erabiltzaileen artean bideratu ditzan: % 35 oinarriak argitaratzean, beste % 35 kanpainako lehen hiru hilabeteak igarotakoan, behin justifikazio partzialeko lehen txostena jasotzean; eta, gainerako % 30, lehen sei hilabeteak igarotakoan, behin justifikazio partzialeko bigarren txostena jasotzean.
4. Kanpaina amaitu eta hilabetera justifikazio txostena aurkeztu beharko du, lankidetzaren hitzarmenean jasota bezala. Ezarritako kreditua ez balitz agortuko, erakunde laguntzaileak sobrerakin guztia itzuli beharko du.
5. Kudeaketan izandako gastuak konpentsatzeko, erakunde laguntzaileak bazkidetu gabeko kontuen mantentze-gastuengatik konpentsazio ekonomikoak jasoko ditu; gastu horien faktura aurkeztu beharko du likidazio-aldi bakoitzean. Kontu berri bat sortzeagatik kostua 14,52 €-koa izango da gehienez eta kontu bakoitzeko hilabeteko kostua 0,605 €-koa izango da.

8. Artikulua. Parte hartzeko baldintzak.

1. Entitateak eta norberaren konturako langileak: dirulaguntza deialdi honetan parte hartzeko aukera izango dute Ekhi moneta soziala ordainketa modu gisa onartzen duten enpresek, saltokiek, kooperatibek, elkarteek eta norberaren konturako langileek. Horiek guztiak honako hauek egiaztatu beharko dituzte, erantzukizuneko aitopenen bidez:
 - a) Ez dutela inongo debekurik Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege orokorraren 13. artikuluan aurreikusitako onuradun izaera lortzeko.
 - b) Zerga betebeharretan egunean daudela, bai Gizarte Segurantzarekin eta bai Ogasunarekin. Hernaniko Udalarekin zorrik ez dutela.
 - c) Entitatearen egoitza edo, norberaren konturako langileen kasuan, jardueren egoitza Hernanin daukatela.
2. Herritarrak: parte hartzeko aukera izango dute Ekhi monetan soziala ordainketa modu gisa onartzen duten herritarrek. Horretarako beharrezkoa izango da:
 - a) Hernanin erroldatuta egotea.
 - b) 18 urte beteta izatea.
 - c) Hernaniko Udalarekin zorrik ez izatea.

Udalak edozein unetan eskatu ahal izango du baldintza horiek betetzen direla egiaztatzeko edozein agiri.

9. Artikulua. Programan parte hartzeko prozedura eta epea.

Ekhi Hernaniko moneta sozialaren erabilera herritarren artean sustatzeko dirulaguntza kanpaina parte hartzeko prozedura eta epea:

1. Ekhilur kontu bat sortu, www.ekhilur.eus web orriaren bidez.
2. Kontuan erreforma bat egin, kanpaina parte hartzeko baldintzak onartu, eta sistemaren bidez erosketak bideratu.
3. Epea: 2026ko urtarrilaren 1etik 2026ko abenduaren 31ra.

10. Artikulua. Parte hartuko duten entitateen betebeharrak.

Hernanin Ekhiaren kanpaina parte hartuko duten entitateen eta norberaren konturako langileen betebeharrak hauek izango dira:

1. Publizitateko materialak establezimenduan ikusteko moduan jartzea.
2. Ekhilur erabiltzaileei sistemaren bidezko ordainketak onartzea, baita esku-diruarekin kontua kargatzeko aukera ematea ere.

11. Artikulua. Erakunde laguntzailearen betebeharrak.

1. EKHILUR kooperatibak, dirulaguntza kudeatzen laguntzen duen erakundea den aldetik, jarduera hauek egingo ditu:
 - a) Programa orokorrean hedatzea, bere webgunean, sare sozialetan eta komunikabideetan, bai banaka ere, txikizkako saltoki guztiak.
 - b) Interesa duten saltokiei informazioa ematea eta kanpainarekiko atxikimendua formalizatzeko laguntza ematea.

- c) Hobaria jaso duen salerosketa bakoitzaren eskakizunak bete direla egiaztatzea.
- 2. Jarduketa horiek gauzatzean, negozioaren eta pertsonen datuei dagokienez konfidentzialtasun eta isiltasun betebeharrak bete beharko ditu. Egiaztapen lanak egin ondoren, dokumentazio guztia Turismo eta Merkataritza Sailera bidali beharko da.

12. Artikulua. Ikuskatzea eta ez-betetzeak.

Hernaniko Udalak, programaren arduradun den heinean, egokitzat jotzen dituen egiaztapen, ikuskapen eta gainerako kontrol guztiak egin ahal izango ditu, baliabide publikoak ondo erabiliko direla eta laguntza programa hau modu egokian garatu eta aplikatuko dela ziurtatzeko.

Hernaniko Ekhiaren erabilerarako sareari atxikitako enpresa edo herritarrek ez-betetzerean bat eginez gero, Hernaniko Udalak atxikipena bertan behera utz dezake, eta ez-betetzerean ondoriozko neurriak aplikatu.

Sareari atxikitakoak behartuta daude Hernaniko Udalak laguntzen zertarakoa fiskalizatzeko eskatzen dien informazio guztia ematera.

13. Artikulua. Adostasun-adierazpena.

Dirulaguntzaren eskaera aurkeztean, eskatzaileak bere adostasuna ematen du eta adierazten du oinarri hauek ezagutzen dituela, deialdian ezarritako baldintza guztiak betetzen dituela eta deialdia oso-osorik onartzen duela.

14. Artikulua. Datu pertsonalen babesa.

Eskatzaileak adierazten du eskabidean jasotako datu pertsonalak bere baimenarekin jasotzen direla, eta onartzen duela datu horiek modu automatizatuan trata daitezela, eta baimena ematen duela datu horien erabilera udal-kudeaketara soilik mugatzeko, nahiz eta datu horiek beste administrazio publiko batzuei eta haien erakundeei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkien, Datu pertsonalak babesteko 2016ko apirilaren 27ko EB 2016/679 Erregelamendu Orokorren 6.1.e. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

AZKEN XEDAPENAK

Administrazio bidea amaitzen duen deialdi honen aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa ezarri ahal izango diote interesdunek, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa ezar daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hilabeteko epean, agindua EHAA-n argitaratu eta biharamunetik hasita.